


bidegileak



Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)


Egilea:

ANDRES URRUTIA

Jaungoiko-Zale elkartearen itzalpean

oigeigarren mende hasierakoa dugu euskalgintzaren pizkunde egituratua. Berpizkunde aldi horretan Eliza Katolikoak partaidetza zabala izan zuela ere ezin ukatu. Gorantz zetorren euskal kulturaren arnasaz, Eliza Katolikoak bere mezuak eta irakaspenak euskaraz zabaldu zituen, abade aldra batzuen eraginaz eta kemenaz.

Hamaikatxo eskuliburu, meza-idazti eta gogoeta-jardun agertu ziren euskaraz orduko hartan, Jesukristoren elizak garaian garaikoari esateko zuenarekin egoki zertuak. Esan daiteke, hala ere, ez zuela Eliza Katolikoak horretan gauza



Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1939)
abadea eta euskaltzaina.

berririk asmatu, lehendik zetorren ildoari jarraitu baino. Izan ere, aspaldiko lorratza zen agerikoa Eliza Katolikoaren jokabidean, euskarra bera erlijio irakaskuntzaren eramaile eta esatari jarrita. Izen hurrenkera luzea osa daiteke historian zehar euskarari ospe eta aitortza eman zizkioten elizgizonekin: Etxepare, Axular, Tartas, Leizarraga Elkanokoa, Agirre Asteasukoa, Gerriko, Frai Bartolome, Frai Mateo Zabala, Añibarro, Juan Antonio eta Juan Jose Mogel... Horiek guztiak eta beste asko

ere, luzebailuze ibiliak ziren doktrina katolikoaren egiak euskaraz emateko ahaleginetan.

Horri dagokion niminoena ere kendu gabe, argi dago hemeretzigarren mende hondarra eta hogeigarren mende hasiera bestelakoak gertatu zirela Eliza Katolikoaren mezugin-tzan. Premiazkoa zen, doktrina oinarrien alde-tik behinik behin, aldiko boladek behar zuten erantzuna moldatzea, giza esparrura eurrez zetozen ideia asmatuberriak aurrean zirela: modernismoa, zientifikotasuna, giza mailen arteko borroka... halakoxeak ziren demarik irtenenak, mendearen aldaketarekin begi-bis-takoak zirenak. Mami azalaz, jokaera bestelako horiek eskatzen zuten doktrina katolikoaren antzaldaketa ahalik eta zabalena izatea, gizartearen barne-zoko guztietara katolikotasun eraberritua hedatzeko.


Tankera desberdina eta osterantzeko jasa zen premiazoena eta bide beretik ere, katoliko-tasun horren antolakuntzan jardun beharra.

Hala ulertu zuten, lehen esan legez, mende-aren etorrerarekin batera euskal abade talde batzuek eta asmogintzarekin batera, ekinari ere oratu zioten. Horren adibiderik esanguratsuenak, beharbada, Bizkaiko *Jaungoiko-Zale* eta Gipuzkoako *Argia* elkarteak ditugu, euska-raren ederrari ez ezik, katolikotasunari ere men egiteko parada erabaki zutenak. Horren helburuaz ere, herri kristau euskaldunari euskarazko bitartekoak eta baliabideak eskaintzeko abagunea alde eta moldez eratu zuten bi-biok, euskal kultura baten barruan.

Bizkaiari dagokionez, langintza horretan nabarmendu ziren Zirilo Arzubiaga, Juan Ba-tista Eguzkitza, Gabriel Manterola, Jose Anto-nio Oar-Arteta, Ibartutxi... eta denon ahotan izan ditzakegun beste hainbeste, horiek ere, beste ezeren gainetik, aitzindariak eta bidegi-leak izan baitziren, euskararen eta euskalgin-tzaren norabidean, gerra zibilaren urratualdia –1936– gertatu arte.

Bizitzako zenbait xehetasun

Horren harira ere, Juan Bautista Eguzkitzaren biografia eta neke-lorrak. Bizkaiko Lemoan jaio zen Eguzkitza 1875. urtean. Idatzietan, ordukoari jarraikiz, hainbat izenorde erabili



Azkeri nire gorantzia
Agur eta bizkor egon
Eguzkitza

Eguzkitzaren sinadura, Azkeri zuzendutako gutun batean.

zituen, jatorrizko izendazioarekin batera. Hartara, hor ditugu Lemoarra, Erri, Errizale edo Errien, hurrenez hurren. Idatzi, gehienetan behintzat, euskaraz idatzi zuen, batzuetan –batik bat, gramatika alorreko gaietan– gaztelaniazko mintzoari heldu bazion ere.

Gazte-gazterik Gasteizko Abade Mintegira joana, laster izan ziren haren dohainak azpimarratzekoak. Mintegi horretan abade ikasketak amaitu, bertako irakasle izan eta berorri egokitu zitzaion, 1903-1904ko ikasurtean, ikasurte hasierako hitzaldiaren ohorea. Egin ere, latin hutsez egin zuen, hizkuntza klasiko horren erretorika jabetun trebe eta iaioa. Halaxe dio orduko argitalpenak: *Joanne*





Eguzkitzaren bitokia,
Lekeitioko Apaltoa kalean,
14. zenbakian.

Baptista Egusquiza, ejusdem Seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore.

Galtzaile atera zen, hala ere, elizaren kargu baterako lehiaketan eta etsiturik omen, Abade Mintegiaren irakasletzari utzi zion. Harik hurren, Lekeition dugu, 1904. urtealdian, hain zuzen ere. Lekeitioko Latinidade katedra hutsik zegoen, eta berak hartu zuen horren ardura. Itsasaldeko herri horretan bete zituen Eguzkitzak, gerra etorri arte, bere bizitzaren jarraiko hogeita hamahiru urteak, Lemoako udaldiak salbuetsita.

Urterik urte luze-zabal horretan, Eguzkitza ordukoari lerratu eta hainbat abaderen antzera, gogotik jorratu zituen euskalgintza eta erlijioaren arloak. Bi arlo horiek dira Eguzkitza laneginaren kutun eta preziatuenak.




Eguzkitzaren gutunak.

Ardatzak ardatz, horren egitekoak adar fran-
ko sortu zituen, harako zuhaitz emankorra-
ren antzera. Nonbaitetik zedarriztatu behar
lemoarraren ekintza-esparrua eta hona
hemen, iritzira, ustezko arlo batzuk, gerora
ere garatzekoak izan daitezkeenak:

- a) Eguzkitza, erlijio idazlea eta itzultzailea;
- b) Eguzkitza sermolaria;
- c) Eguzkitza, gizarte-auziaren erakuslea;
- d) Eguzkitza, euskaltzain osoa eta kultur
egilea;
- e) Eguzkitza etnografoa, ikerlaria eta
kazetaria;
- f) Eguzkitza, Jaungoiko-Zale elkartearen
partaidea.

Gerra zitalak Lekeitiotik aldendu eta guda
hotsen zirimolak eraman zuen itsasaldetik
kanpora. Politika susmoak izan zituen gaine-
an. Gudu-irabazleek, nonbait, ezin harena bar-
katu eta areriotzat hartuta, berehala atxilo
zuten lemoarra, euskal abertzaletasunaren
susmopean. Epaitu ere bai. Haren aurkakoak,
alabaina, sustrai ganoradunik ez eta aske utzi
behar. Berandu, ordea, lemoar euskaltzale-
arentzat, orduko gaitzak jota baitzegoen.

Epe laburrean, 1939. urteko irailaren hama-
bian, hain justu ere, Lemoan hil zen Eguzkitza.
Harena jakin zuenean, Azkue maisuak, urte
luzetan lankide eta adiskide izandakoaren
gomutaz, artezki aitortu zituen Eguzkitzaren
merezimenduak. Labur eta zehatz adierazi



Azkuek sinaturiko agiria, Eguzkitzaren babese-
rako, azken horren auzipetzea zela eta.



Lemoan bertan, 1975. urtean Euskaltzaindiak Eguzkitzaren
omenez jarritako oroitarria.

zuen lekeitiarrak bere barrukoa, haren herio-
tza zela eta: «Gizon handi bat hil da. Eguzkitza
hil da.».

Eguzkitzaren jaiotzetik ehun urtegarrenean,
1975. urtean, omenaldia eskaini zion Euskal-
tzaindiak Eguzkitza euskaltzain oso eta abade-

ari Lemoan bertan. Hizlariak, Eusebio Erkiaga
eta Aita Santi Onaindia izan ziren, euskaltzale
lemoarraren deduzko aipamenak egiteko.
Ekitaldiaren orogarri jarri zen haren jaiote-
rrian harrizko ikurra, Eguzkitza zenaren lana
egun ere gogoratzen diguna.

Erljio idazlea eta itzultzailea


san legez, abade bizkaitar honen asmoa ez zen, inondik ere, hizkuntzaren eder soila, ezpada hizkuntza eta katolikotasuna batera erabili eta euskal herritarrei eskaini horren fruituak. Bete-beteen asmatu zuen horretan, behinolako *Kempis* liburuaren hitzetan esanda. Esan ere, liburu horrek honetara zioen, Terese Deuna´ren Pi Aba Karmeldar Oñotsak euskaratu zuen moduan –1926–, *Jaungoiko-Zale* elkartearen babespean:

Egia, ez izkortasuna, bilatu bear da idazti deunetan. Edozein Idazti deun, egin zan gogoagaz irakurri bear da. Esakera zorrotza baño, onurea lenago bilatu bear dogu Idazti deunetan.

Eliza Katolikoaren zabalkunde lanean dihardu Eguzkitzak, aldeko zuen ideia hori euskaraz bilbatzean. Euskal herritarrarentzat idatziak eta testuak atondu behar, pastorgintza berrian buru-belarri zebiltzan horiei bestelako lanabesak emateko. Herri xehea zuen jomuga lemoarrak, herri horren arima-artzainak alboan uzten ez baditu ere.

Horientzat ondu zuen berea Eguzkitzak. Horren langintza oparotik, aukeran, jarraiko hirurak, goi mailako ahots baten adierazle:

– Sardá eta Salvany katalan abade propagandistaren eskutik *Garbitokiko Arimaen Ila* eman zigun, 1915. urtean eta itzuli beharraz, Eguzkitzaren lumak. Jatorrizko idazlearen lanari egin zion harrera neurtzeko, hona Eguzkitzaren iritzia:



Garbitokiko Arimaen Ila (1915)

Sardá Jaunak érderaz idatzi ebanetik artu nebazan idaztiño aonetarako gayak; baña sarritan, irakurtaldi bategaz, geyago begiratu barik, idatzi neban ondo neritxona; augatik bein baño sarrijago daurkikezu, irakurlea, aonek aren eta arek aonen antz gitxi baño eztaukala.

– Lau urte geroago (1919), beste behin ere, Eguzkitza euskal elizaren plazara; aurrekoaren itxuran, *Jaungoiko-Zale* elkartearen eskutik dator lemoarraren bigarren lana. Oraingoan, ostera, Eguzkitza ez dator inoren lumaz jantzirik, norberaren hego arinaz baino. Gogo umotuak adore ematen dio Eguzkitzari euskara naro eta oparoan, halako *Andra Maria'ren Loretako Ila* liburua prestatzeko. Izan ere, askoren ustez, horixe da gai horretan euskaraz egindakoen artean gainditu gabekoa. Idaztanka zehatza, esa-

teko modu zolia; azala, eredugarria, giharra, ezin hobestekoa:


Gauza bakotxa zegaitik eta zetarako noz nun eta zelan egin bear dan, zurtasunak irakasten dauku: zein dan ona, zein ohea ta zein onena; zein dan txarra, zein txarrago ta zein txarrena adiraztea be, zurtasunaren berarizko zeregiña da...

... Jainkoari maitasun, gurtze, menpetasun eta eskar-ona; aberriari zintzotasun eta maitasuna; gurasoai andizuren, laz-tantasun, lotsa eta laguntasuna; geure ongi-leai, euren onegite ta mesedien gomuta ta ordaña: nagosi ta zarragoai, menpetasun, lotsa ta itzala; bardiñai kidetasun ta txera ona; menpekoai euren onerako izango dan ardura zoli-bizkorra; txiro ta bear-tsuei erruki ta sorospena zor dautseguz.

Bazuen, nolana ere, Eguzkitzarenak zinezko garramura eta indarra euskararen baitan eta



Andra Maria'ren Loretako Ila (1919).



Argi Donea (1932); bizkaierazko testua.

harrokerietan ibili gabe, berriro ere, 1932. urteko udan, Baltzolaren *Argi Donea* bizkai-eratu zuen, egoki eta garden. Berebat, mende-baldeko euskaraz eman zuen kristau-ikasbidea, Manuel Lekuona euskaltzaleak gipuzkeraz ondu zuenaren parekoa.

Epaiak epai, Eguzkitzari *Euskera* aldizkarian (1959) eman ziotena ere, ezin utzizkoa:

Prosa oparoa, itz ondo neurtua, joskera jatorra –bizkaieraz gutxitxo bezelakoa–; aundi-keri puztu ta anpaturik gabea; dana adierrez; itxuraz xalo, bañan estilo ondotox landua, beaztoparik gabekoa... kirru leuna gorulari trebearen eskuan antzo...



Vitoria Elizbarrutiko
Kristiñau-Ikasbidea (1934).

Sermolaria

Idatziari dagokion ber, mintzatua ere pisuduna erlijioaren zabalkundean, euskal historiari begira batik bat. Herri ezjakinaren aurrean, hitza lege, euskal sermolarien mintzoetan. Idatz eta mintz, biotan jardun elizak, igandero-igandero pulpitorik berorren irakaspenak aldarrikatuz.

Herritar askorentzat huraxe zen une bakarra, euskara jendaurrean erantzuteko. Huraxe ere, euskara plaza-hizkeraren ederrak gozatzeko abagunea, aurreiritzi anitzen aurka eta ezinesan guztien gainetik.



Eleketa horietan Eguzkitza maisu zela antzina igarri zuen Resurreccion Maria Azkue lekeitiar euskaltzaleak. Euskal egunetakoak ziren ordukorik aipatuena euskalgintzaren alorrean. 1921. urtean Durangon, 1923. urtean Donezteben eta 1928. urtean Arrasaten, hirutan, beraz, Eguzkitza meza-emaile eta hizlaria. Beste horrenbeste, Andoaingo euskal jaietan, 1929. urtean. Bazterretan ere, hamaikatxo hitzaldi eta sermoi eder, han-hemenka barreiatu eta egun ere argitalpenaren zain daudenak. Halako batean, Durangon, lehen euskal egunetako hitzaldiak entzun ostean, hona hemen Azkue handiaren hitzak:

Euskaldunak:

Goizean Meza bitarteko itzaldi ederra entzueran, neure barruan ninoan nik; «ai nok leukean eskueran gramofonu uts bat, bera ementxe erabilteko eskubidea ta yasa! Neure lankide maite onen itzaldi auxe artuta estualdi onetan erara nasaituko nintzateke». Bene-benetan dirautsuet: bigira onen ta euskalegun onen amaitzat bere bizikoa izango genduan. Nik «euskaldunak» esanda gero, neure gramofonu beteari zotza kendu ta ederto entzungo zenduezan barriro Eguzkiza yaunaren itzak. Tenor bati bere gora-

-goraka luzeak entzunda gero frantzesak bis, alemanak *Wieder*, erdaldunak *que se repita* esanda, bigarrenez oiur eragiten dautse. ¿Iztun bati (sermolari bati) zegaitik ez? Oiturarik eztoigu ta nik gaur bere neurez ekin bearko.

Sermoigintzan diharduen Eguzkitzak gai puzkoak darabiltza, euskal literaturazkoak nahiz fede eta erlijioaren sailekoak. Hartara, 1921. urtean, aita Mateo Zabala euskaltzalearen eginak dira Durangoko sermoiaren nondik norakoak. 1923. urtean, ordea, Nafarroako Donezteben, Joakin Lizarraga euskal



Eguzkitzaren sermoiak eta Azkueren gorapena.

idazlearen zertzeladak. 1928. urtean, berriz, Eguzkitza, Arrasateko euskalegunetan, euskararen gerokoaz kezkatu:

Euskalduna ta euskeraz mintzo dena, euskerara darabilana, euskeraz itz-egiten duana, gauza bat eta berbera dira: orrengatik euskeraguziz, zearo galduko balitz, euskaldunik ez legoke ta Euskalerririk ain gutxi... Euskeraz ezta alderdi bat edo besterena, euskaldun guzioena baizik...

Andoainen ere, urtebete geroago, Larramendi bertako seme jesuitaren oharrak esku-erakutsiaz biribildu, gipuzkeraz zein bizkaieraz:

Aita Larramendi goratzeko bildu, batu gera emen... «Eziña Egiña» deritzan bere euskalizia ta beste lanak, zertako, zer xedez, zer asmoz egin zituan? Gure lurralde au beti Euskalerra ta Jaungoikoaren erri izan *zedin* (eiten); au dala-ta Larramendi aundietsi ta goratzeko biderik onena, euskaldun-fededun izatea *degu* (dogu). Asmo ori *ar dezagun* (artu daigun) gaur. Larramendi'ren irakaspen eta geure asaben *oroipen* (gomuta) laztanak, ori eskatzen *digute* (daskue). Gure asabak, euskaldun eta fededun izan dira; guk ayen (arein) semeok ere, gere jatorri, izen eta odola ukatu nai *ezpa-ditugu* (ezpa-doguz) beintzat, euskaldun eta fededun izan bear *degu*...

Gizarte-auziaren erakuslea

Jakin bazekien Eguzkitza hark «euskaldun fededun» leloa ez zuela nahikoa, euskal herritarrak elizaren barruan jagon nahi bazituen. Hogeigarren mendeak ekonomiaren nagusitasuna ekarri zuen; bateko, kapitalismoaren norberekeriak; besteko, sozialismoaren taldekeriak; bi-biok, gogor gaitzetsiak, Eliza Katolikoaren doktrinatik. Aita Santu Leon XIII.aren eskutik *Rerum Novarum* entziklika abiapuntutzat hartu eta Elizak gizarte-auziari heldu behar izan zion. Gauza bera, bistan da, Euskal Herrian ere.

Orduko, euskal abertzaletasuna sortua zen eta horren itzalpean ere, euskal abertzaleen sindikatua, katolikotasunetik lerratua eta ondo estekatua: *Solidaridad de Obreros Vascos* (1919).



AVASC (*Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana*) elkartearen hitzaldiak.


Elizaren doktrina sozialak bestelako ondorioak ere ekarri zituen euskal herritarren gogora. Erpinean, menturaz, *Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana (AVASC)* delakoa, 1932. urtean sortua. Inguru-inguruan, gertu-gertutik, harako abade solidarioak, Policarpo de Larrañaga, Alberto Onaindia, Aitzol, Azpiazu... eta legezko izan bedi, sarri-sarri hala aipatzen ez bada ere, Eguzkitzaren izena errenkada horri areagotzea. Maiz aipatu du Eusebio Erkiaga idazle lekeitiarrak, gerra aurrean Lekeitiotik bidaltzen zuen albiste emailtzan, Eguzkitza bera AVASC elkarteak herrietan antolaturiko ekintzetan partaide sutsua izan zela.

Zerbait bereizgarri bada, bestalde ere, Eguzkitzaren ekinean. Lemoarrak, beste askok ez bezalaxe, euskaraz dihardu gai horretan ere. *Jaungoiko-Zale* elkarteak sortua zuen orduko (1932) *Ekin* asterokoa, aspaldiko *Jaungoiko-*


-Zale aldizkariaren ordezeko. Hantxe aritu zen, zazpi egunero-zazpi egunero Eguzkitza, gizarte-auzi tankerako gaiak azaldu guran. Hiru urteren buruan, 1935. urtean, ordu artekoak batu eta euskaraz halako gaiak lehendabizikoz ehotu dituen liburua argitaratu zuen *-Gizarte-auzia-*, pil-pileko sozialismoa (*gizartekeria*), komunismoa (*baltsakeria*) eta abar, euskaraz uztartuak.

Soziologia? Erlijioa? Saiakera? Itzulpen lana? Esan daiteke denetik dagoela liburu horretan eta gizarte jakintzako lehen euskarazko liburua izateko, aintzat hartzeko modukoa dela. Egotzi ohi zaio horri hitzen garbizalekeria, leporatu zaizkio zurruntasunak eta hertsikeriak. Beude. Aldekoen esatari, ez besteen azpiko, Orixe zenaren hitzak:

Gai zailtan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskal-errian.



Gizarte-Auzia, lehen argitalpena (1935).



Gizarte-Auzia, bigarren argitalpena (1990).

Euskaltzain osoa

sanak dira Eguzkitzaren gogo eta asmorik tinkoenak. Erljioa eta euskara begien bistakoak. Lehenari gailentasuna aitortu bazaio ere, ezin bigarrena ostendu, euskara baita, lemoar abade horren ahal eta leherretan, pisutsuen eta zertuena.

1919. urtean sortu zen Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta Oñatiko Kongresuaren purian. Resurrección Maria Azkuek hartu zuen bere gain euskararen akademia moldatu beharra. Lan nekeza zuen lekeitiarrak, eta beharleku horretan egoki jokatu zuela argi dago. Hasierako lau euskaltzainek (Azkue, Elizalde, Campion, Urkixo) laster izan

zituzten beste zortzi euren aldamenean. Lehendaurrezko laurei nork lagundu horretan, Azkue lekeitiarrak berehala igarri zuen Eguzkitza lemoarraren egitekoa. Izan ere, lemoar lekeitiartuari egotzi zion Azkuek euskaltzaintza osoa, 1919. urte horretan bertan.

Eguzkitzak enbidoa onartu eta sarritan gertatu zitzaion zirtolari, hizkuntza gaietan, Azkueri berari ere. Iritzikerietan baino, Eguzkitzak sakon eta zabal jorratu ohi zituen euskal gaiak. Euskal gramatikaren makina bat sail zituen begiz jotakoak eta Euskaltzaindiak sorreratik bertatik kezkaburu larrienak izan zituen horietan guztietan zeresana adierazi zuen, tentuz eta zentzuz.

Euskararen batasuna, garbizaletasun/garbizalekeria, joskera, aditza, ahoskera... horiek dira



Euskaltzainak (1927). Zutik, ezkerretik eskuinera: N. Ormaetxea *Orix*e, Elissalde, S. Altube, Julio Urquijo eta P. Olabide; jesarririk, ezkerretik eskuinera: Eguzkitza, B. Etxegarai, R. M. de Azkue eta G. Lacombe.

Eguzkitzaren ikerketapekoak. Azkue maisuaren *Morfologia Vasca* liburu mardulari ere iradokizun mamitsu eta sakonak eskaini zizkion. Horren ondorioz eta lanaren ikuspegitik behintzat, bai kopuruari eta bai jakintza mailari dagokionez, gailenenetarikoa paratu zen, Eguzkitza sorrerazko euskaltzain osoen artean.

Esanaren erakusgarri, Euskaltzaindiaren arrangura bizia, euskararen batasuna. 1922. urtean Eguzkitzak txosten luzea aurkeztu zion Euskararen Akademiari. Gai erabakigarriak arakatu zituen lemoarrak. Besteak beste, eus-

kararen batasuna nola bideratu, euskalkien zeregina nondik moldatu, euskal hitzak zein aukeratu. Labur-zurrean, honetara plazaratu ziren haren iritziak:

6.^a Euskera batua ta euskalkiak noz eta zelan erabili jakiteko, zelako euskaldunak daukaguzan gomutau daigun. Euskaldunak aldr bitan banandu daikeguz: euskera irakurten dabenak eta ez dabenak.(...)

13.^a Augaitik jasointzat artzen dogun gipuzkoar euskalki oni, beste euskalkien aberaskiz albait geyen osotu, ornidu ta apaindu bear dala dirudi. Onelan beste euskalkien itz oitu

ta zâr guztiak, batzuetan orain dauken irakurpenarekin, beste batzuetan ikurpen ori pizka bat aldatura euskalki onek beretu bear ditu, ezetarako izan daiken ezeri be galtzen itxi barik. (...)

14.^a Au egin arren be, lander asko izango da, edozein erderaz adierazo leiken guztia, euskeraz be adierazo al izateko, bear dituan itz barri guztiakin ornidu ta aberastu bear da. (...)


17.^a Onelan ba, antzifiatik sartu yakuzan erdelitz arrain bein-bein geldi itxita, geyago ta geyago sartu ez dakiguzan, euskal-itz zarrak idoro, bear diran barriak sortu ta zabaldu beitez. (...)

28.^a Augaitik gipuzkoar euskalki osotua erabilteko eskakizun ori ondo dago; baña ba-

kotxari bere euskalkiz idazteko eskubidea gitxitu barik. Gipuzkoera erdiz-erdi ta bere euskalkiz ondo idatziko dauala uste daunak, berea erabilia geyago egingo dau. (...)

33.^a Euskalkietan idatziko dabenentzat beste arau batzuk ipiñi leiz: baña len aitatu dodazan orreiz gañera, araurik onena auxe dala uste dot; idazleak norentzat idazten daun beti begien aurrean euki begi: irakurle aldra bakotxari, beretzat egokia dan gaya, ondo ulertuko daun eran azaldu begio. (...)

35.^a Euskaldun barriak. Euskararik ez dakienak, euskara batu, ornidu ta aberats ori, beste gaurko edozein euskalki baizen errez ikasiko dabe; augaitik edonongo euskaldun barriari ori irakatsi bear yake, batasunaren alde ezer egin nai ba-da behintzat.



Eguzkitzaren lanak Euskera aldizkarian.

Egitasmo osoa, hortaz, Eguzkitzarena, egun ere baliagarri izan dakigukeena ezin askatuzko korapilo askoren aurrean.

Eguzkitzarena, esan gabe doa, hori baino hedatuagoa ere bada. Euskalgintzaren ikuspegitik, horratik, aipatu beharrekoa da *Euzkerea* aldizkarian gogoz eta tinko eraso ziola orduko euskararen garbizalekeriari. Aita Zabala-Arana *Nabarriztarra*, eta horren aldekoek grina indartsua erakutsi zuten euskararen aditza goitik behera itxuraldatzeko. Horren harira, Eguzkitza erro-erroko aurkaria dute, herriaren usaera baitu gidari lemoarrak, ustezko asmakerietan ibili gabe.

Hirugarrenik ere bada Eguzkitzaren baitan. Izan ere, eragibidez, irakaslea da, erakusteko

lerrakera bizia azalarazten duena. Haren pro-sari ere, sarri-askotan, kutsu didaktikoa edo, idoro ohi diote. Berak, egin-eginean ere, bere baitara bildu zituen irakasletzaren bertuteak. Onartua du hori lemoarrak eta 1917. urtean, abertzaleek Bizkaiko Foru Aldundia bereganatu zutenean, euskarari aitortu zioten aitzindari-tza eta berehala, *Junta de Instrucción Pública de la Diputación de Vizcaya* eratu. Horren magalera, beste batzuen artean, sona handiko euskaltzaleak: Cosme de Elguezabal, Eduardo Landeta, Evaristo de Bustintza, Federico Belausteguigoitia, Juan Bautista Eguzkitza...

Beste behin ere, Eguzkitza euskara irakas-kuntzaren bultzagile eta sustatzaile.

Etnografoa, ikerlaria eta kazetaria

Don Juanen –hala esaten zioten lekeitiarrek Eguzkitzari– jakin-mina aseezina zen, eta euskararen eta Euskal Herriaren goi-beheak harrotu zituen bere gintzan. Lekeitio bizi eta Lekeitiori opa zion, *Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkarian*, sekulako artikulua eta lana, euskal etnografiaren ezaupide sakona erakusten duena: *Kaxarrankaren goraberak eta Auriako jaya*. Aldizkari berean ere, euskal idazle trebearen plazaratze hauek: *Mikoleta'ren euskereak eta gaur Bizkaya'n darabilgunak ize alde ete-dauke?*, «*Dos obras inéditas escritas en euskera: Christinaubaren eracuspna edo Doctrina christiana y Jesucristo gueure Jaunaren biotz sagraduco devocinoia*». Ostera ere, ikerlari sutsuaren dirdaiak ageriko.

Kazetaritza lana ere, gomutan izateko modukoa. *Ekin* asteroko ahalak, esan legez, gero-ra *Gizarte-azua* liburura bilduta. Apaltxoago edo ezkutuago, *Ekin* asteroko horretan ere, Lekeitio albeste eta berriak, kazetariaren eite labor antzean gauzatuak, berbalau herri-tarrago baten errekatik, *Erri* eta *Errien* izenorde horien pean. Kazetaritzaren eragina barrutik zeramala azpimarratzeko, orobat aipatu behar, *Emakume euskotarra* delako artikulua, eusko andrazkoen gorapenez eгина. Horrek ekarri zion Eguzkitzari, 1930. urtean, *Kirikikiño* saria.



**KAXARRANKAREN GORABERAK
ETA AURIAKO JAYA**

Don Juanen... (text continues)

Sanamigutsu, Aitorra, Peñitro,
Kaxarrankaren goraberak...
Gastilla, 31 DICORRI

Lekeito.
Eguzkitzari... (text continues)

Abadiño.
Eguzkitzari... (text continues)

Legendilla (Kaxarra)
Eguzkitzari... (text continues)

EAN
Eguzkitzari... (text continues)

eguzki, eta urteko teletara azalaren ba dire garbiak eta subeatsa, ta arikakia ta matzoreta ta ardaxa, gogotan izanen dut euskal-biziera au, gure gurkuzoen lantxide begikoa au.

Nik ere lero uketan azaldu nai izan dizut, irakurle, euskal-biziazaren zati au, aldiz aldiz irakurri nai ba duzu: euskal-biziera ori egitez ezin eza gogoz bizi nai ba duzu.

EMAKUME EUSKOTARRA

1930'garren urteko «*Kirikikiño* saria» irabazi zuen idazlana.

Egilea: Eguzkitzari/Van U. Youna

Amerik Pikaud, Kompostela'ra osterea egin eban bidazti aforzatzak, tsar-kofenak idazti ebanan nazar euskotarren ariak. Gurek zue egin ezuzoren ezirikago, baina berak bear ezanen bat egin ehalako eua, nazpaz karia astindua ta hepa beratu euzoala derisat. Bidazti aforz otek euskotaren

Eguzkitzaren idazlana, nor nahikoa (RIEV, Ekin...).

Jaungoiko-Zale elkartearen partaidea

1912. urtean sortua, hara batu ziren Bizkaiko abade asko, pentsamolde katolikoa euskaraz ematekotan, gero eta ozenago aldarrikatzen zen euskal kultura baten harira. Zornotzan zuten horiek bilgunea, eta 1917. urterako Eguzkitza zen buru. Hamabosterokoa zuten *Jaungoiko-Zale* aldizkaria eta euren inprenta-jabe ere baziren.

Haien goiburua «Euzkaldunei Euzkeraz» zen eta elkartearen irudiak fede katolikoaren zabalkuntza zuen ageri-agerian. Izan ere, irudi horretan lurbira osoa zen nabari, Jesukristo gainean zela, eta batetik bestera, lurbira hori zeharkatuz, *Euntes docete* agindu ebangelikoa, Mateo apostoluaren testu ezagun hartatik (Mateo 28, 19: *euntes ergo docete omnes gentes: zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle,...*) eskuratua.

Katolikotasuna eta euskalduntasuna, beraz, oso-osorik estekatuak, latinetik euskararako bidea eginda. Lehena, Jesukristoren mezua, mundu osorakoa. Hurrena, aldiz, mezu hori

Euskal Herrira egokitua, hau da, unibertsaltasuna tokian tokiko inguruabarretan moldatua.

Elkartearen barruan, mota askotako erlijio liburuak eta zeresanik ez, katolikotasunaren inguruko berbalauko euskal idazle andana ezagun eta emankorra: Eguzkitza bera, Gabriel Manterola *Gama*, Ibargutxi, Oar-Arteta, Izurrategui.... Horienak ziren gerra aurrekoan Bizkaiko euskal abadeen eskuetan ibili ziren testuak. «Loretako illak», «Kristau-Ikasbideak», «Edesti Deuna» edo «Erlijioaren historia», «Irakurgaiak»... Mota askotariko idaztiak jarri zituen *Jaungoiko-Zale* bazkunak abade eta elizaren eskumeneko, batez ere, *Idazti Deunak* zeritzan liburu sortan.

Ororen gaineratik, *Jaungoiko Zale*-k sortu zuen Bizkaiko Elizaren barruan euskalduntasunaren halako hariltze lotua, gerraren etena eta urratzeak, hautsi baino, lurperatu egin zuena. Lurperatze horrek, hala ere, eta eragozpenak eragozpen, ez zuen erabat moztu harrezkeroko bidea, gerra osteko Ibargutxi bizkaitarren lanek –*Ikurtonak* eta *Geroko bizitza*– ederki erakutsi zuten.

Erlijioa eta hizkuntza

Tradizio horren ezaugarriak plazaratzeak «euskaldun fededun» horren aldetik garamatza. «Euskaldun fededun» bai, baina jakitun izanik hizkuntza eta nortasun baten jabea dela euskaldun hori eta katolikotasuna euskal sus-terretatik bizi nahi duela. «Euskaldun fededun» horretatik norabidetu eta, lehen esan dugunez, *Jaungoiko-Zale* elkarteak berehala ulertu zuen propagandaren garrantzia, katoliko-koen erlijio-heziketa bidean.


1932. urteak ekarri zuen, Espainiako errepublikaren etorrera zela eta, hurrengo pausua. *Jaungoiko-Zale* hamaboskariak bide egin zion *Ekin* asterokoari, eta astero-astero abade aldra horrek bere lanari ekin zion. Tartean,

herriko albisteak eta berriak. Gizarte kontuak ere, era-erara.

Nolakoa, bestela, elkartearen ekina? Non-baitetik zehaztekotan, eta lehen esandakoaren arabera, bi ardatz dira nagusi zeregin horretan, alegia, erlijioa eta hizkuntza.

Erljioari dagokionez, Kristautasuna nagusi, eta katolikotasuna gidari. Erljioaren esparruan zehatz-mehatz jarraituko diote horiek orduko doktrina katolikoari. Doktrina horretan barru-barrutik txertatu zuten bigarren aldarte hori, hizkuntzarena.

Jada irakurria denez, euskal hizkuntza aintzat hartzekoa zuten *Jaungoiko-Zale*koek. Eredu horretan, elizgizon aldra bizkaitarrak hautu



Jaungoiko-Zale bazkunaren propaganda orriak.



Jaungoiko-Zale bazkunaren izendegia (1916).

jakina egin zuen, besteak beste, euskararen garbitasunaren aldekoa. Garbitasun horrek, zernahi gisaz, ez zituen itsu-itsuan eraman garbizalekeriara edo euskal gaiztora. Behar-bada, estuegi jokatu zuten, eurekiko zein euskal testugintzarekiko, euskarari erlijio gorabeheretan eremu berezkoa ziurtatu nahian.

Bestelako molderik ere bada apaiz hauen ekintzetan. Elizako testuak euskaraz emanak, horra hor euren jorana eta aiurria. Emate hori, ez nolana hikoia, ezpada modu arautu eta batuan, sakabanatze eta anizkeriatik ihes eginga. Horren lekuko, «Kristau-ikasbideak» ba-

tzeko saioak. Halaber, euskal abadeentzako eskuliburuak. Horrelakorik egiteko lehiaketa antolatu *Argia* apaiz elkarteak. Sariduna, Baltzolarek *Argi Donea*. Gipuzkeraz eginiko hura laster batean bizkaieraz, esan legez, Eguzkitzaren eskutik. Atzetik zetorren gogoia, ezin argiagoa, liburuaren hitzaurrean:

Azkenez, liburu onen bidez, eleizkizunak eta otoitzak batera ekarri nai geunkez. Eleizako ta arimako gauza andienak toki guztietan bardin edo bardintzu egitea ondo da... augaitik eleizkizunak eta otoitzak batera ekarri nai geunkez... Orduan izango da kristiñau




Jaungoiko-Zale bazkunaren aldizkariak (Jaungoiko-Zale eta Ekin).

euskalduna eleiz-gauzetan, bear dan lez,
ondo ikasia...

Halakorik erdietsi ote zuten galde dezake
norbaitek, hasierakoari jaramon eginez gero.
Gehiegikeriak gehiegikeria, baiezkoan gaude.
Sortaldiaren euskara garbizalegi hura ez zen
horren nabarmen geroagoko ahaleginetan.
Askoz gutxiago, jakina, gerra aurretokoetan.
Arrazoi osoa zuen, beraz, Eusebio Erkiagak,
Lemoan bertan (1975) Eguzkitzaren omenez
jendaurrean azaldu zuenari eusteko, hitz

horiek laburbiltzen baitituzte –gogoratu
Gizarte-auzia delakoaz diharduela– Eguzki-
tzaren baitara, abade talde horren bilakaera
osoa:

Prosa arina eta erraza da orkoa, gero eta
errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdali-
tzak be, inoiz baino ugariago. Onelakoxea
izan zitekeen arrezkero haren idazte modua
jaso zana jaso ez balitz. Gerrateak euskal
literaturan egin euskun urratualdi negarga-
rria, besteak beste.



Jaungoiko-Zalaren argitalpenak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- Rufo Atxurra.
- Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.
- Labayru Euskal Biblioteka.
- Markinako Karmeldarren Konbentua.

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA · DERIO
Sarr 36.709-2 / 2002
Gaia.
Tokia.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1753-7
84-457-1755-3

L.G.: VI-508/01



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística